



Iván Giménez

♦ KAZETARIA

Gaurko memoria historikoa: izen-abizenen faltan

NAFARTASUNAK hainbat osagarri izan ditzake, baina badira bi inork kolokan jartzen ez dituenak, gatazkarik sortzen ez dutenak, Gabonetako senide afariak porrotera bidaltzen ez dituztenak. Denon bihotzetan daude, ez bairik gabe: Sanferminak eta Osasuna. Gainontzeko guztia eztabaidagarria da, baina Sanferminak eta Osasuna (arraro batzuen gustuko ez badira ere) nafartasunaren gakoak bezala ikusten ditugu: bai abertzaleak bai espainolistak, Mendikoak zein Erriberakoak; ezkertiarrek edo eskuindarrak.

Hala ere, Sanferminen eta Osasunaren historia krimen politikoen historia da. Gaur egun denok zuriz janzten gara Txupinazora joateko, ohitura hori eraiketa batzuen gainean idatzita dagoela susmatu gabe. La Veta penaren kideak hasi ziren zuriz janzten, baina horietako batzuk Gerra Zibila hasi bezain laster fusilatu zituzten errepublikarrak izateagatik. Haien artean, José Zapatero, Jarauta kaleko gaztea: 1936ko abuztuaren 23an Bardeetako Valcarderako triskantzan akabatu zuten, beste 52 lagunekin batera.

Udal plazara iritsita, Txupinazoa, tradizio jendetsu eta alai hori, beste eraiketa baten gainean oinarritu zela jakin behar da. Juanito Etxeparek, Kale Nagusiko tabako-dendariak, ezin zuen imajinatu zein oihartzun sortu behar zuen bere *inbento* xume horrek: suziri batzuk aire-ra botatzea Sanferminak hasi direla berri emateko. 1931n hasi zen horretan eta Gerra Zibilera arte segitu zuen ohitura berriarekin. 1936ko uztailaren 6tik egun

gutxira, fusilatu egin zuten, errepublikarra izateagatik. Krimena ez zen horretan gelditu: 1940tik aurrera frankismoak Txupinazoa ofizializatu zuen, izen handiko bi iruinsenemeen eskutik: Jokintxo Ilundain eta José María Pérez Salazar, biak falangistak eta kazetariak *Arriba España* egunkarian. Historia ofizialaren arabera, hauek dira txupinazoaren asmatzaileak, eta horrela irakur dezakegu Iruñeko udalaren webgunean. Krimenak irautean du, nolabait.

Eta Osasuna? Nafarroan izena euskaraz duen erakunderik garrantzitsuenak da, *Salud* izena inposatuko diguten arte, bederen. 1920an, Sportiva eta New Club Iruñeko taldeak batzerakotan, izen berri bat asmatzeko beharra sortu zen. Talde horren agintari bati, Eladio Zilbetiri, Osasuna bururatu zitzaion, oso modu arrakastatsuan. Kontua da Zilbeti EAE-ANV alderdi politikoko kidea zela eta bere bizitzarekin ordaindu zuen militantzia hori: 1937an, Etxauri aldean fusilatu zuten.

Sanferminen eta Osasunaren historia krimenetan oinarriturik izanda ere, Gerra Zibileko irabazleen oinordekoen ikurrak dira —gainontzeko nafarren ikurrak diren neurrian, gutxienez—, inolako eztabaida publikorik sortu gabe. Agian, memoria historikoa lantzeaz gain, gaurko memoria kolokan jarri beharko da, izen-abizenekin. Eta beste baterako geratuko da errepre-sioari esker pilatutako botere ekonomikoak, gaur arte luzatu dena betikoen mesedetan. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Sagardotegi boladan jarriak



XDZ

Agin Laburu

♦

Doinua: Espainian behera.

Hau Segin, hau Herriran ta beste hau ETAn... aspalditik ohituak aldapa lauetan. Ta gu Astigarragan, gure arauetan: koadrilak egunez ta koadrilak gauetan, txinparta baten bila garai zail hauetan.

Lehendabiziko txotxa egin ta segitun, legerik eza denez hamaikaren itun nik sarri galdetzen det: “hola zergatik hun?”. Inguru hontan soilik al gara jakitun txinparta horrek zenbat su eragin ditun?

Basoak hautsi dira mila bider ia, komona non dagoen ezin igerria... jende ausartez bete zaigu hilerria. Nahiz ta txotxari esker bizi den herria gauza guztien gisan, badauka neurria. ■

